

INDAR ARMATUEI

1.- Espainian tradizioz armada monarkikoa izan da, errege katolikoekin hasita. Ez da izan demokrata. Eta ni hori baieztatzeko historiara lotzen naiz, historia hurbilera. Errepublikan, ezkerreko indarrek irabazi zutelarik plebiszitoa, altxatu egin ziren, gerra bat piztu zuten, garaile atera ziren eta eskuin muturreko diktadura ezarri zuten. Franco hiltzean demokrazia bat ezarri zen (zehatzago izateko monarkia parlamentarioa), sistema politiko hori baitzen nagusi bigarren gerra mundiala irabazi zutenen artean, eta hori zelako, bi mende aurrerago monarkiaren eta aristokraziaren kontra Frantziako iraultzan atera zena, demokrazia. Eta Frantziako errepublikaren himnoan tiraniaren kontrako parrafoak daude. Justua izan zen Frantziako iraultza. Tiranoek gutxi irauten omen dute, hasten direnetik berehala egiten dituztelako etsaiak eta kontrarioak.

Egia errateko, denak degeneratzen dira (moralki hitz eginenez) denborarekin, gehiago edo gutxiago, ez baitugu ahaztu behar kultura orientalean gaudela, kulturetan gaiztoena. Hori da behintzat nire ondorioa, nire teoria. Baina gizonak, kultura oriental gaizto horretan, soluzioen bila jardun izan du, eta lan asko egin da, hori bertutea da, eta zientziak eta letrak hor aurreratu dira gehien, eta formakuntza profesionalean eta unibertsitateetan estudiatu egiten dira problemak, soluzioen bila. Hori ere erran behar da kultura orientalez.

Konparaziorik ere ez dago “herri indigenekin”, nobleagoak, hobeak baziren ere euren kultura tradizioetan, baina alfabetorik ere ez zuten edukitzen normalean, oparotasunez inguratuak zeudelako ziurrik, eta beharrik ez lan egiteko, diot nik. Ez zuten problemarik?. Ez ziren aurrez ikusten zutenak?. Justizia egitea da bakoitzari berea ematea, hori da bertute horren definizioa. Begira dezagun ondo zer gertatu zaien indigenei. Zer egin dieten kultura orientalekoek. Gaiztoenek, hain zuzen ere. Eta hortik gaur egunera arte, noiz kultura orientala zabaldua dagoen planeta osora, kulturarik garatuena. Indigenismotik apurra geratzen direla.

2.- Eta nik, artikulutxo honetan justua izan nahi dut. Denok jarraitu dugu Katalunian independentzia, alde bakarreko erreferendumaren bitartez, nola lortu den, baina Espainiako Konstituzioaren kontra, eta beraz ilegala izan da, eta ez du baliorik. Ni independentista naiz, baina erraten dut ilegala izan dela alde bakarreko independentzia aldarrikapena. Estatuko parlamentuan eraikitako konstituzioa errespetatu behar dela diot. Bestela, aurrekari txarra izango litzateke problematika nazionalak, planetan asko daudenak, erresolbitzeko (hori da nire argumenturik nagusiena). Horregatik Rajoik erran zuena nik banuen liburu batean lehenago ipinia: legearen inperioa. Eta nik baino lehenago Kante bazuen hori aipatu, bake betierekoa liburuxkan.

3.- Nik, bokazio militarra dutenei galdetuko nieke, gaur egun, zein den euren zeregin erreala, egiazkoa, eta erantzuten didate konstituzioa defendatzea dela, legea betearaztea. Eta nik erraten diet ezen orduan jakin behar dutela demokrazian, herritarren boto bidez erabakitzen dela parlamentua, eta bertan promulgatzen direla legeak, eta baita lege nagusia ere, konstituzioa.

Eta baita erraten ere diet legeak, kuantifikadore unibertsalaren egitura logikoa badute ere, aldagarriak direla. Eta hori begien bistan dago, eta hamaika kontra etsenplu daude hori erakusten dutenak.

Eta ni ausartuko nintzateke beste galdera bat egitera, eta legea aldatzen bada demokrazian, botoen bitartez aukeratutako erabakiz, orduan hori ere defendatuko lukete?, defendatuko zenukete?. Hau da, demokraziaren zerbitzura egongo zinakete kasu horretan ere?.

4.- Podemos partidua agertu zenean, eta nazioen autode-terminazioa defendatzen zutela erran eta gero, hauteskunder- tan, Euskal Herrian eta Katalunian boto gehien atera zituen indarra izan zen, beraz nagusigoa atera zuten bi nazio horietan. Hau da, herriak argi laga zuen, bere sinesberatasunaz, argi laga zuen zer nahi zuen. Eskubide hori konstituzioan ezartzea bake santuan. Baina ez da hola gertatu, indar korrelazioa, estatuan, ez zen nahikoa, eta ez da ahaztu behar Franco ez zela berrogei urtez alferrik gobernatzen izan. Beldurra, eta ez nola-nahikoa, sartu zuen herrian.

5.- Edonola ere alde bakarreko independentzia, erreferendumean, gaur egun ilegala dena, erabaki zen, eta bada azpimarratzeko datu bat: ez da hildakorik izan procesu guzti horretan. Aurrerapen bat eta handia niretzat. Planteatu behar diegu horixe militarrei eta poliziei. Eurak daudela konstituzioa defendatzeko. Hala nola, euskaldunon aldeko gobernu batek konstituzioaren parte hori kanbiatzen badu, gure naziotasuna bertan ezagutuz. Zer egingo zenukete?, galdetuko nieke. Eta horretaz eztabaidak egin behar dira militarrekin, denok conforme jarri artean. Bakea delako kontzientziaren, eta gizartearen, egoerarik nobleena, onena, (baina soilik egiazki Jesusek ematen duena, ez mundu honek), denok dakigun moduan. Eta modu horretan denok bihurtzen gara “konstituzionalistak” (egiazko demokrazian, jakina, non ekidin egiten den gerra).

Oraingoan nazionalista independentistok badugu zer ipini mahai gainean indar armatuen zereginaz. Eta pazientzia, eroa-pena, ez dakigula agortu, alferrikakoa baita. Pazienteak izan behar dugu, bakean egin nahi baditugu gauzak. Eta Frantziako gure partean beste horrenbeste proposatzen dut egitea.

Europar konponduko dira Europako arazo nazionalak, ni europeista naiz eta hori pentsatzen dut.

Eta argumentazio hori planeta osora ere zabal daiteke. NBERa. Bakean aldaketak eta mugimenduak egite aldera, eta bakean nahiago bada, demokrazia da irtenbidea.

6.- Eta bitartean soberania espazioak, demokrazian, irabazten jarraitu behar da. Eta nik pentsatzen dut, euskaltzalea bainaiz, kulturako eta euskarazko transferentziak lehenetsi behar direla, bete daitezten bururaino, euskara hil ez dadin (estandarra argitasunaz antolatuz). Eta argitasunakin politika eginez gero ez da zertan gure hizkuntza hil behar. Diru larregi gastatu gabe gainera.

Erraten da linguistikan lege bat dagoela, errezenara jotzen dela. Gure kasuan erdarara, bistan dago, estandarra ezinbestekoa delako bizitzeko. Beraz ahalegin bat egitea ezinbestekoa da euskara bizi dadintzat. Israeldarrek hebraierarekin egin zutenaren modukoa.

7.- Eta teorizatzen dudan bide demokratiko eta baketsua, nik uste dut ulertua izan naizela, zabaltzen ahal da beste problema askotara, baina konpontzen ahal badira demokraziaren bitartez, eta asko dira. Uler bekit borondate onarekin. Denon onerako daiteke. Bakean egiten ahal baitira gauza asko demokrazia garbian.

8.- Ohartxo bat idatziko dut nire afan bakezalea oraindik gehiago ikus dadin. Independentzia, edo Vasconiaren ezagutzatza osoa, iristen ez den bitartean nik badut espainolistei zer-bait proposatzeko. Suitzako modeloa. Suitzian lau hizkuntza dituzte. Bakoitzak berea egiten du normaltasun osoz, nik dakidala holaxe da (agian erromantzea pixka bat atzeratu da), eta denak oso ondo konpontzen dira elkarrekin. Helvetia. Hori, errespetu hori erreibindikatzeko euskararendako Euskal Herrian. Kantoi suitzar bat balitz legez.

9.- Eta beste ohartxo bat erlijioaz. Ni katolikoa naiz, beraz hierarkiari obeditzen diot fede eta moral kontuetan, baina ez politikan, non independentista naizen eta ezkerreko modera-

tua, kristaua, eta independentea, eta desenkantatua. Nik gozain espainolista eta eskumakoa daukat orain, baina ez daukat inolako problemarik horregatik, kristauen arteko batasunaren aldeko sutsua naiz (gauden bat), neure burua ukatu ere egiten dut horregatik.

Libre da bakoitza, politikan, zientzia politikoan, iritzi diferentek edukitzeko, eta begien bistakoa da zergatia, etorkizun dena indeterminatua zaigulako, beraz, proposamen diferentek izan daitezke politikan eta zintzotasunez eta arrazoi onak emanda bada posible diferente pentsatzea. Baina gorentasuna fedek du nire baitan. Ondo uler bekit. Gauzak ordenatzen eta hierarkizatzen jakin behar da. Bestela politikak errez nagusigoa hartzen du denon artean. Eta erlijiotasun zintzoa kaltetua da. Eta asko. Eskarmentu historiko asko dago horren gainean.

10.- Laburpen bat, amaitzeko, egingo dut. Demokraziak, ondo eroanda, balio du politika bakean egiteko.

11.- Nire ustez politikan batez ere arduratu behar dira laikoak, hierarkia ez hainbeste. Niretzat laikoen kontua da, laikoen kezka. Ahaztu gabe eskarmentuak dioena, diferentzia politikoez gorroto handiak eragiten dituztela. Gerraraino ere, gerra zibila kasu.

12.- Nire filosofiaren laburpen bat egokia deritzot ematea. Zientzia materialek ez dute unibertsaltasuna iristen; Jesusek, kontrara, unibertsaltasunetik hegan egiten du denen gainetik, berban berba erranda. Jesus da nire Jauna. Nire Nagusia. Nire lehentasuna. Eta hortik bajatu egiten naiz zientzietara, eta zientzia praktikoetara ere, eta etikan hierarkia katolikoak agintzen badit, politikan ez. Eta hori diot nik libreki erabaki dudalako katoliko egitea. Eta badakit hizkuntzen ugaritasuna zigorra dela, baina hori hor dugu, ez dago atzera egiterik, eta edukazio bilingueak linguistikan abantail asko ditu, intelektua zabaldu egiten baitu ulermenera.

Roman Garmendia